

GIL 7 Bakioko buztinak eta ofitak



Bakioko hondartzako ofiten azaleramenduaren ikuspegia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 25' 54,02 ''

Long.: 2° 48' 10,64''

- **UTM koordenatuak:**

X: 515.947,97 m

Y: 4.808.772,02 m



Nola iritsi

Bakiora iritsi behar da; Bilbotik, BI-631 errepidea (Bilbo-Bermeo) hartu, eta Bidebietan (Mungia) BI-2101 errepidea hartu Bakiorantz. Bermeotik joanez gero, BI-3101 kostako errepidetik. Bakiora iritsita, hondartzara joan haren edozein sarreretatik. Azaleramendua hondartzaren ekialdean dago, erreka bat bideratzen duen hormatik San Pelaio auzotik hondartzara jaisteko eskaileretaraino.



Ofita bretxaz josien ikuspegia. Zati batzuk hobeto kontserbatuta daude.



Keuperreko buztin gorri eta berdexkak, igeltsuz betetako zain tipikoak ikusten direla.

GILaren deskribapen laburra

Triasikoko materialak, Keuper faziesekoak, ohiko buztinak eta igeltsuak dira, haiei elkar-tutako ofitekin batera. Multzo hori ondo ikusten da Bakioko hondartzaren ekialdeko partean, kostaldeko dinamikaren ondorioz atzeratzen ari den labarrean zehar. Materialak Bakioko antiklinalaren nukleoan azaleratzen dira; antiklinalaren ardatza N30E norabi-dean orientatuta dago. Arroka horiek Behe Albiarreko kareharri eta kalkarenitekin kontaktuan daude.

Multzo horretako arrokarik ugariak ofitak dira, eta, higadurarekiko erresistenteagoak direnez, erliebe eta harkaitz bakartu gehiago dituzte hondartzako hareatzen. Aski meteorizatuta daude, eta egitura masibo eta bretxoide bitartekoa dute; badituzte zati batzuk pixka bat freskoagoak, kolore berde ilunagatik ezagutzen direnak. Haietan, piroxeno eta plagioklasak atzeman daitezke, testura ofitikoaren ohiko bilbea eratzen dutela. Alterazio-epidota oso ugaria da. Bestalde, multzoak haustura berantiar asko ditu, epidota, kaltzita eta beste mineral sekundario batzuek bete dituztenak.

Buztinak, tuparri nabarrak eta igeltsuak fazies horien kolore tipikoengatik —gorriak eta berdeak— bereizten dira, eta egitura masiboa ageri dute, zona batzuetan burdinsare-egitura duena, igeltsuak bete dituen hausturek eratua. Betekin horiek sedimentazioaren ondorengo aldietakoak dira: igeltsua disolbatu egiten da, eta hausturetan metatzen da.

Triasikoaren amaieraren ezaugarria kostaldeko aintzira handiak agertzea da; han, lurrunketa nagusitu zen, eta Keuper faziesa ezaugarritzen duten igeltsuak sortu ziren.

Ofiten sorrera geroxeagokoa da, eta duela 200 Ma inguru hasi zen Pangea superkontinentearen hedatze- eta haustura-tektonikaren hasierarekin erlazionatuta dago. Horren ondorioz ireki zen Rift Atlantikoak zenbait magma sortu zituen; magma horiek gorputz intrusibo subbolkaniko gisa —ofitak— kokatu ziren Keuper fazieseko sedimentu buztin-tsu-ebaporitikoetan.

Buztin- eta ofita-multzo hori gainazalera zergatik atera den eztabaidagai dago, baina, dirudenez, garbi dago kontrol estruktural sendoa dagoela, zeren eta diapiro hori eta beste batzuk antiformeen nukleoetan agertzen baitira. Antiforreak tolesen interferentzia-prozesu baten emaitza gisa deskribatuta daude: Albiarraren aurreko fase bat, eta Eozeno-Oligozenoko beste bat; hala, arrautza-kaxaren antzeko geometria bat eratzen da. Era berean, erraza da material horiek, beren plastikotasuna dela eta, higitzea eta igotzea, eta ostalaria zula dezakete zenbait puntutan. Gerta daiteke, halaber, material horiek haustura sakonagoen aldera igotzea.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 22, GIL 88, GIL 95, GIL 105.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 142, GIL 143.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa			●	
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					



Ofita-gorputz dekametrikoko baten eta Keuperreko buztinen arteko kontaktua.

Bibliografia espezifikoa

- EVE, 38-I.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121 or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M., Morales, T., Ramón-Lluch, R. eta Ibarra, V. (1988). “*Interferencia de plegamientos alpinos en el tercio occidental del Arco Vasco (Cuenca Vasa)*”. Geogaceta 5, 5-6.